

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Nola eboluzionatzen du ugaztunen tamainak?



MONASH UNIBERTSITATEKO (AEB) Alistair Evans ikerlariaren lantaldeak aztertu egin du ugaztunen tamainaren eboluzioa azken 70 milioi urteetan, eta datu interesgarriak argitaratu ditu. Adibidez, errazagoa da lehorreko ugaztun batentzat txikiagoa izatea handiagoa izatea baino, eta itsasoko ugaztunen handitze abiadura handiagoa da lurtarrena baino.

Hona hemen datu batzuk: lehorreko ugaztun batek tamaina 100 aldiz handitzeko 1,6 milioi belaunaldi behar dira, tamaina 1.000

aldiz handitzeko bost milioi belaunaldi, eta hamar milioi belaunaldi tamaina 5.000 aldiz handitzeko. Adibidez, saguen tamaina elefanteenaren adinekoa izateko 24 milioi belaunaldi behar dira. Aldiz, ugaztunen txikitzea askoz ere astiroago gertatzen omen da: ugaztun bat nano bihurtzeko 100.000 urte baino ez dira behar.


Baina nola liteke ugaztun batek txikitzeko joera izatea? Batez ere lurralde mugatueta, irletan adibidez, gertatzen da hori. Janari gutxiago dagoenez, egoera horretara moldatzeko txikiagotzen dira animaliak, eta aldi berean ugaltze-tasa handitzen dute.



Eguzki-ekaitzek urrundutako elektroiak

EGUZKIAN, aldiro-aldiro, leherketa erraldoiak gertatzen dira eta horren ondorioz aldaketak izaten dira Lurraren eremu magnetikoan. Esaterako, iparrorratzek eta GPS sistemek ez dute funtzionatzen, poloen inguruetako aurorak indartsuago azaltzen dira eta latitude baxuagoetan ikusteko aukera izaten da.

Aspalditik ikerlariak kezka sorrazten zuten gertakari baten erantzuleak ere badira eguzki-ekaitzak: Lurra inguratzen duen erradiazio-gerrikotik elektroiak aldi batez desagertzea. 60ko hamarkadatik ezagun da fenomeno hori, baina oraintsu arte ez da jakin nora doazen elektroio horiek: gutxi batzuk atmosferara "erortzen" dira, baina gehienak planetatik aldentzen dira, eguzki-haizearen partikulek bultzatuta.



Munduko laser indartsuenak materia sortzen du

Stanford-eko Unibertsitateak kudeatzen duen LCLS laserra segundo bateko bilioirenean erabiliz aluminio xafla bat bi milioi gradutaraino berotu eta bertan plasma egoeran zegoen materia berria sortu zen. Ikerketak lagundu dezake izarretan gertatzen diren antzeko gertaerak hobeto ulertzen. <http://ttiki.com/34693> (Gaztelaniaz)

Interneteko protokolo berrira egokitzen

Madrileko Carlos III.a Unibertsitatean egungo Interneteko protokoloan (IPv4) kokatuta dauden edukiak laster indarrean egongo den protokolo berriarekin (IPv6) bateragarri izatea ahalbidetzen duen teknologia garatu dute. <http://ttiki.com/34694> (Gaztelaniaz)

Alzheimerraren aurkako antigorputzak

Zenbait gaixotasunen kontra borrokan aurrerapenak egitea zaila izaten da, lehenbizi kaltearen eragileak detektatu behar direlako eta ondoren selektiboki akabatu behar direlako. Berriki, Alzheimerraren eragile nagusienetakoa den molekulari soilik erasotzen dion antigorputza sortu da. <http://ttiki.com/34695> (Ingelesezt)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16